

Lan baldintza txarrek hil egiten dute

2007. urtean, gutxienez 116 langile hil dira Euskal Herrian. Heriotza horiek aztertuta, honakoa ondorioztatu dugu: lan egoera txarrak, egonkortasunik ezak eta azpikontratazioak hil egiten dute.

DANIEL UDALAITZ

Argazkia: Dani Blanco

1.200 LAGUN hil dira, gutxienez, Euskal Herrian lanean ari zirela azken hamarkadan.

Kopuru hori ez da ofiziala administrazioentzat, eta ziur asko handitu egingo litzateke zazpi lurraldeetako lan ezbeharrei buruzko datu erreale guztiak izango bagenitu. Estatistiken distortsioa sortzen da administrazio bakoitzak, hau da, Espainiakoak, Frantziakoak, Euskal Autonomia Erkidegokoak eta Nafarroakoak, neurtzeko modu desberdina erabiltzen duelako eta bakoitza berari dagokion lurraldearen datuez baino arduratzen ez delako. Beraz, Euskal Herri osoko datu guztiak jaso ahal izateko, berriz ere Nazio Estadistika izateko beharra sortzen zaigu. Modu horretan baino ezin daiteke lor gure egoeraren argazki erreala.

Horrelako erakunderik ez dagoenez, aldizkari hau *Gara* egunkariak egunez egun bildu dituen datuez baliatu da bere datu estatistikoak sortzeko; izan ere, egunkari hori, mugak baditu ere, hurbiltzen da gehien zazpi lurraldeetako errealtatera (www.gara.net/gaiak/lanistripuak webgunean ikus daiteke). Ezin da ahaztu lan istripuen kopuru erreala hemen jasotzen dena baino askoz handiagoa izango dela, egunkari horretan egunero bildu diren datuak istripu larriei edo hildakoei baino ez baitagozkie. Kasuren batean, gainera, larri zauritutako langileren bat hil

egin zen eta horri buruz ez zen deus argitaratu.

Hilabetez hilabete

Urtarrilean, gutxienez, 30 lan istripu izan ziren eta 14 lagun hil ziren. Beste hainbeste langilek mota ezberdinetakoz zauriak izan zituzten. Hildakoen erdiak, eraikuntza sektorekoak ziren, eta arlo horrexek du, hain zuzen ere, egonkortasun ezik eta azpikontrata-

zio bolumenik handiena. Otsailean 19 lan ezbehar izan ziren, eta 12 lagun zendu ziren. Beste 12k zauriak izan zituzten. Zorigaitz horietatik zazpi eraikuntzan gertatu ziren. Martxoan beste 23 istripu jazo ziren; horietan, 12 hildako eta 11 zauritu izan ziren. Istripu horietatik, zazpi eraikuntzaren sektorean gertatu ziren. Apirilean, Aste Santua eta Pazko astea tartean izanda, ezbehar kopurua gutxitu egin

Rafa Diez Usabiaga, LABeko idazkari nagusia "Pankartaren kontua agortuta dago"

Oso gai larria bada ere, orain arte, langileek eta sindikatuak erantzun monotono, mekaniko eta banatua eman diote lan ezbeharren gaiari, eta pankarta bat erakusteko elkarretaratzeak besterik ez dituzte egiten. Badirudi denak ados daudela pankartatik harago joan behar dela esatean eta erantzun orokor eta bateratuak eman behar direla uste dute. LAB sindikatuak pauso bat eman du hori lortzeko eta sindikatuen arteko bilerak egiten hasi dira. Diez Usabiagak zera esan du: "Eraso dialektikora jo beharra dago", "pankartaren kontua agortuta dago; erantzunaren maila ez

da gaiaren garrantziarekiko proportzionala".

Greba orokorra deitzeari dagokionez, Usabiagak esan du badaudela arrazoiak erantzun orokorra emateko baina sindikatuak ez du inolako proposamen zehatzik egin eta "ez du inolako diseinu edo formaturen erantzule izan nahi". Beraz, haren ustez, sindikatuen arteko elkarrizketak bukatu eta gero, denen artean formatu bat zehazteko aukera egongo da; izan ere, sindikatu abertzaleak dioenez, "argi dagoen gauza bakarra da gaur egungo erantzun eredu agortuta dagoela".

Langileak ez dira istripuetan
bakarrik hiltzen. Beren
enpresetan erabilitako
produktuek sortutako
gaixotasunengatik ere
hiltzen dira

zen, eta 8 istripu izan ziren. Bi lagun zendu ziren eta 6 zauritu. Bost ezbehar eraikuntzan izan ziren.

Maiatzean, 20 istripu gertatu ziren, eta, horien ondorioz, 20 langile hil eta 18 zauritu ziren. Hildako gehienak eraikuntzan zebiltzan. Ekainean gertatutako 19 lan istripuetan, 9 lagun hil eta 10 zauritu ziren. Beste behin ere, eraikuntza arloan izandako zorigaitzak nabarmendu behar dira. Uztailean, 33 ezbehar gertatu ziren eta, ondorioz, bederatzi langile hil eta 23 zauritu ziren. Orduan ere, eraikuntza sektorea nabarmendu zen, baita Mugerren (Lapurdin) izandako bi istripu ere, pertsona bat hil eta beste bat zauritu baitziren. Abuztuan, oporrak zirela-eta, ezbehar kopurua asko gutxitu zen. Hamaika izan ziren eta emaitza 3 hildako eta zauritu batekoa izan zen. Irailean, 24 ezbehar jazo ziren; horien ondorioz, 7 langile hil ziren eta 19 zauritu. Eraikuntza sektorean gertatutakoak izan ziren nagusi berriro ere.

Urrian, istripu kopurua gutxitu egin zen eta 13 gertatu ziren; horietan, bost lagun hil eta zortzi zauritu ziren. Hilabete horretan, eraikuntza sektoreaz gain, nekazaritzan izandako istripuak nabarmendu ziren. Azaroan 29 lan istripu izan ziren eta ondorioz, 5 lagun hil eta 23 zauritu ziren. Eraikuntzan gertatutakoez gain, suteek eta leherketek eragindakoak aintzat hartu beharrekoak dira. Azkenik, abenduan, gutxienez, 13 istripu izan ziren eta zortzi hildako, horien artean hiru garraiolari. Zaurituak ere izan ziren. Istripuak Iparraldean zein Hegoaldean gertatu ziren.

**Eraikuntza sektorea,
gazteak eta etorkinak**

Euskal Herrian izandako lan ezbeharrek aztertu ondoren, 2007an lan istripu larria izan edo hil direnen ezaugarriok nabarmendu daitezke: batez



Bukatu berri den urteko lan istripu gehienak eraikuntzan gertatu dira.

beste 30 urtekoak, eraikuntza sektorekoak edo muntatze-lanetan aritzen direnak, egonkortasunik gabeko kontratua dutenak eta azpikontratatan lan egiten dutenak. Etorkinak gero eta maizago izaten dira Euskal Herrian gertatzen diren ezbeharren biktimak.

Lan eritasunak

Langileak ez dira istripuetan bakarrik hiltzen. Beren enpresetan erabilitako produktuek sortutako gaixotasunengatik ere hiltzen dira batzuk. Eritasun

horietako batek zenbait enpresatan erabilitako amiantoarekin du harremana. Euskal Herrian, dagoeneko, hainbat lagun hil dira gaixotasun horrek jota. Joan den urtean bertan, Portugaleteko langile baten kasuaren berri izan genuen. Garai batean Babcock Wilcox-en lan egin zuen hark. CCOOK sakon landu du amiantoaren gaia eta berak emandako datuen arabera, EAEn horren inguruko 20 auzi epaitu dira. Beste 20 kasutan, dokumentuak tramitatzen ari dira. ■